



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Gure enpresaren oinarria bezeroengan daukagun erlazioa da, ez dugu soilik zerbitzu bat eskaintzen, baizik eta erlazio hurbil bat sortzen dugu konfiantzan eta elkarlanean oinarrituta.

Bezeroekin hainbat modutan erlazionatuko gara, beti harreman hurbila eta erraza mantentzeko helburuarekin:

- **Telefono** bidez: bezeroak zalantzak edo galderak dituztenean, gurekin zuzenean hitz egin ahal izango dute. Beti erantzuteko prest gaude, laguntza edo informazioa emateko.
- **Aurrez aurre**: gure komunitatean antolatutako topaketetan, tailerran edo ekitaldietan bezeroekin elkar ikusiko gara. Horrela, konfiantza eta gertutasuna landuko ditugu. Norbait kasu baten gurekin aurrez aurre bakarrik egon nahi badu, aukera izango du.
- **Sare sozialen** bidez: Instagram, Tiktok eta Facebook bezalako plaformen bidez bezeroekin komunikatuko gara. Bertan gure aholkuak, topaketak, ekintzak eta abar jarriak egongo dira. Gainera, mezu pribatutik idatzi izango ahal dute.
- **Webgunearen** bitartez: gure web orrian informazioa, izen-emate orriak eta harremanetarako aukerak egongo dira. Bezeroek bertatik gure zerbitzuak ezagutu ahal izango dituzte.
- **Posta elektronikoaren** bidez: mezu pertsonalizatuak bidaliko dizkiegu bezeroei, informazio berria eta ekitaldien gonbidapenak jasotzeko.

Guk parte hartzen dugu komunitatean jarduera desberdinak egiten ditugunean, beti egoten gara bertan laguntzen, gidatzen eta dena ondo atera dadin zaintzen. Horri esker, gure harremanak askoz estuagoak bihurtzen dira, eta komunitateko kideek hobeto ezagutzen gaituzte. Gainera, jarduera guztietan gutako bat gutxienez, presente dago, komunitatean ditugun arau guztiak betetzen direla bermatzeko.

Bezeroek gu pertsona hurbil, solidario eta arduratsugisa ikusiko gaituzte; benetako komunitate bat bezala, ez soilik enpresa bat bezala. Enpresa deskribatzekotan, berritzailea, atsegina eta giozartearekiko konpromisoa duena dela esango lukete, bai adinekoekin bai gazteekin dugun benetako loturagatik.



Gure helburua da bezeroak gu familia handi baten moduan ikustea, non bakoitzak bere lekua dueneta inor ez den baztertuta sentitzen. Elkarlanean, guztion ongizatea erdigunean jarrita, bizitza hobea eraiki dezakegulako sinisten dugu.